



Egilearen eskutik

“Laneko euskara” Arloko liburuak

*Mariaje Jauregi/Tere Barrenetxea
(Elhuyar)*

Hastapenak

“Laneko Euskara” Arloko liburuen nondik-norakoak azaltzea eskatu digute HABEko lagunek. Elhuyar taldean landu ditugun material hauek hasiera batean “Alfabetatze Zientifikoa” eta ondoren, orokorrean, “Laneko Euskara Ikastaroak” izenez eman ditugun ikastaroetan dute jatorri eta funtsa. Ikastaro horien historia pixka bat egin beharko dugu, beraz, liburu horien ezaugarrien zergatia tajuz azaldu ahal izateko.

Elhuyar Kultur Elkartearen sorrerako helburua euskara ezagutza zientifikoaren eremuan erabiltzeko egokitzea zen (1972. urtean gaude). Taldearen xedeei erantzun asmoz, lehen urteak termino zientifikoen lanke-tan eta batxilergorako zientzietako testuliburuaren sorkuntzan eman ziren.

Euskarazko irakaskuntza hedatuz zihoan neurrian, testuliburu haiek gero eta ikastetxe gehiagotara heltzen hasi ziren.

Horrek berehalaxe beste behar bat sortu zuen: testuliburu haiek (eta haiekin batera proposatzen zen terminologia, esapideak eta diskurtsorako eredu osoa) erabili behar zituzten irakasleen trebakuntza. 1979an hasi zen Elhuyar taldea honelako ikastaldiak ematen. Irakasgaiak euskaraz landu behar zituzten zientzia eta teknologietako irakasle euskaldunei, hizkuntz aldetik aurki zitzaketan oztupo nagusiak nola gainditu erakutsi nahi zitzairen. Ikastaro haietako ikasleak beren ikasketak gaztelania hutsez egindako euskaldunak ziren. Gaia ondo ezagutu eta jakintz arlo horretako kontzeptu-sarea menderatzen zuten, beraz. Jakintza hori euskaraz ere erabili ahal izateko eta, bereziki, ikasgelako testuinguruan erabili ahal izateko zubiak jartzea zen ikastaro haien helburua. Puntu honetan gogora ekarri beharko genuke, orain urte gutxi gertatutako kontuak badira ere, urte haietan ez genuela Fisika, Kimika, Matematika eta

Natur Zientziak euskaraz erabiltzeko egun dugun erosotasun eta erraztasunik.

Orduko egoerak lexiko berezituaren hutsuneetara erakar erazten zigen arreta. Arazoa ez zen etxea egiteko zementu-falta somatzea; adreiluak ere bakan ziren eta behar genituenak nola “fabrikatu” zen gure kezkarik nagusienetakoa. Honela, bada, ikastaldi haiek ondoko bi zutabe hauek zituzten:

* Lexiko-sorkuntzarako bideak lantzeko saioak. Saio hauetan mailegutzatza, eratorpena eta hitz-elkarketaz gain, eraikuntza sintagmatikoen inguruko azalpen, erabilera-arau eta ariketa analitikoak landu izan ditugu.

* Klase-emankizunen simulazioa. Ikasleei bere irakasle-ihardueran ematen zuten gai eta mailako ikasgai bat prestatzea eskatzen zitzairen. Horretarako, arlo horretako euskal testuliburuak, hiztegiak eta ezagutzen genituen lagungarri guztiak eskuratzen genizkien. Horrekin ikasketariak gidoia prestatu eta gainerako ikastarokideen aurrean gaia azaltzen zuen. Hori baino lehen, ikastaroko irakasleak arlo horretako sarrerako gai bat azaltzen zuen, hizkuntzaren erabileraren eredu bat eman nahian.

Hasierako ikastaroetara hurbildu zirenak, ohi den bezala, beharrik larriena sentitutako irakasle kezkatuenak ziren. Haiekin ez zegoen didaktika askoren beharrik: lanabesak eman (guk genituenak) eta sutan jarri (esaerako ontzia bezala). Ez zuten laguntza handirik behar. Baina gerora, txanda bat eta beste pasa ahala, hain “bero” ez zegoen ikasketari-multzoa hurbiltzen hasi zen. Elhuyar taldean saio gogor haiek pixka bat irengarriago egitea aztertu eta materiala zertxobait gehiago lantzen hasi ginen. Ordurako didaktikaz, neurri apalean behintzat, zertxobait jantzen hasiak ginen.

Ur sakonagoak

Honelako ikastaroen beharra beste lan-ingurune batzuetako profesionalak ere bazutela eta, hainbat tokitan izan ginen “Laneko Euskara” ikastaroak proposatzen. Orduko Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipala izan zen enbidoari eutsi ziona (1985. urtean). Filosofia eta esperientzia bagenituen; baina, lan-mundu zabalean murgiltzeko hori baino gehiago beharko genuela eta, gure lan-taldea beste batzuen ekarpenekin osatzen saiatu ginen. Elhuyarren “Laneko Euskara” ikastaroetan aritu eta horretan trebatutako irakasleak eta Aurrezki-Kutxetako gaiak lantzeko gaitasuna zuenik bagenuen. Umezurtz, didaktika aldetik ginen. Alderdi hori sendotzeko AEK-ko Didaktika-taldekoekin hitz egin eta Kutxetako ikastaroetarako materiala sortzeko elkarlanerako erabakia hartu genuen. Hor ikasi genuen ikasliburuak definitzen, ariketa-eredu desberdinez baliatzen, etab.

Lankide hauen bidez izan genuen planteamendu komunikatiboaren berri eta horrela heldu ginen “English for Specific Purposes” arlora; gerora gure artean Xede Bereziatarako Hizkuntza edo Xede Bereziatarako Euskara izenarekin erabili dugunera. Arlo honetako materialak eta lanketa teorikoak irakurtzen hasi ginen, eta euskararen egoeratik somatu eta erantzun nahi genituen arazoak besteenetan nola bideratu zituzten ikasten.

Ikastaroetatik liburuetara

Laneko Euskara Ikastaroen eskaria ere gora zihoan eta Elhuyar taldean guztiei ezin erantzun ahal izango geniola kezkatuta, materiala argitaratzeak beste erakunde edo irakasleei arlo horretan sartzeko aukera eman go zuela pentsatu genuen. HABEra jo eta baiezkoa bueltan. “Laneko Euskara” Saila irekiko zutela beren argitalpenen artean eta hasiera emateko “Zientzia eta Teknika”* liburua argitaratu zen 1986. urtean. Hurrengo urtean sail berean “Aurrezki-Kutxak eta Banka”* eta hirugarrenean, “Udal-Administrazioa”*¹, udaletako langileak trebatzeko pentsatua.

Lehenengo liburuan, hau da, *Zientzia eta Teknika*, egile-multzoa handi samarra da. Liburu horretako materialak Elhuyar taldeko hainbat lankidek urtetan zehar egindako ekarpenetan oinarrituta dago. Zortzi agertzen dira liburuan bertan aitortuak, baina egon liteke iturria aitortu gabe duen materialik tartean; lehenengo hau osatzeko hainbat urtetako ikastaroetako materialak berrikusi eta aztertu bait genituen.

“Aurrezki-Kutxak eta Banka” eta “Udal-Administrazioa” liburuetan egile-taldea txikixeagoa da eta denbora-tarte laburragoan egindako lanak dira. Labur esanda, kontrolatuago sortutako materialak dira hauek.

Planteamendu honen arrazoiak

Lan-giroko komunikazio-ekintzak bakarrik kontutan hartuz prestatutako ikastaroetarako, bi arrazoi aurkitu ditugu guk:

- 1 Testuinguru jakin batean ondo definitutako komunikazio-ekintzetarako gaitasuna eskuratzeko biderik labur eta eraginkorrena egoera horiek trebakuntz egoerara ahalik eta gehien hurbiltzea da.
- 2 Euskarak arlo sozioekonomikoan duen statusa dela eta, langileak euskaraz aritzeko dituen arazoak ez dira gaitasun hutsezkoak. Beste faktore asko daude jokoan eta hiztuna guztien aurrez aurre ez jartzekotan, laneko eginkizun horiek banan-banan, langunean bertan eta beste lankideekin batera lantzea izan daiteke ohiturak aldatzen hasteko modua.

Planteamendu honek ondorio zuzenak ditu ikastaro hauen zenbait alderditan: xede-taldeak iharduera profesionalaren aldetik ahalik eta homogeneoena izan behar du, materiala (neurri batean, behintzat) lanpostuan erabiltzen dena bera, gaiak lanekoak eta ekintzak ere lanpostuan burutzen dituenak. Baina alderdi guzti horiek, eta azkena bereziki (ekintzei dagokiena, hain zuzen), ezin dira oso estu hartu.

Batzuetan (eta ez batzuetan bakarrik) ezinezkoa izaten da mugakizun guzti horiek kontutan harturik material koherente eta erabilgarria sortzea. Zenbait lanpostuk, gainera, bere funtzioak burutzeko ez du hizkuntz ekintzen errepertorio handirik eskatzen. Paper-piloa ondoan eduki eta bertako daturen bat ordenadorera sartzea izan daiteke lanpostu bateko eginkizunen %80, esate baterako. Horrek ez du hizkuntz lanketa handirik eskatzen, ezta klaseetarako iharduerak prestatzeko biderik ematen ere. Lanpostuak eta bereziki funtzio batzuk aldakorrek direla eta, lanpostua aztertze hutsetik nahikoa langai lortzerik ez zegoela konturatu garen kasuetan lan-ingurunea izan dugu aztergai.

Hau mutur bateko kasua da noski. Beste muturrean oso goi-mailako hizkuntz gaitasuna behar duten lanpostuak daude. Haultzat aipatutako materialak hastapena besterik ez dira.

Laneko prozedura

Xede-taldeari buruzko informazio guzti horiek eskuratzeko, elkarriketak egin izan dizkiegu ikastaroan parte hartzekoak ziren langileei, eta baita lanpostuko hainbat material bildu ere. Bertan agertzen diren hizkuntz edukiak eta trebetasunak aztertu, mailakatu eta lantzeko moduan prestatzea izaten da hurrengo urratsa. Horretarako “gaiak” aukeratu eta gai bakoitzerako “helburuak” definitu izan ditugu, “ekintzak” kontutan hartuz. Adibide baten bitartez saiaturako gara hau argitzen. Aukeratutako gaia VISA txartela baldin bada, “bezeroekin eta dendariekin ahozko informazio-trukea” izan daiteke “ekintza” bat eta txartel horren tramitazioetan erabili beharreko “inprimaki bat betetzea” beste bat. Unitate horren helburua bi eginkizun horiek euskaraz burutzeko behar duten gaitasuna eskuratzeko izango da. Azken urratsa hori didaktizatzea eta ikasgelako egoeran erabiltzeko moduko materialetara eramatea izango da, noski.

Hori litzateke, oso gaingiroki bada ere, material hauek sortzeko burutu dugun prozedura. Beste alderdi eta faktore asko eduki behar izan ditugu gogoan, baina horixe litzateke hari nagusia.

Bukatzeko esan dezagun material hauen tirada eta salmentari buruzko daturik guk ez dugula. Arrakastari buruz ere ezer gutxi esan dezakegu, baina honelako ikastaroak prestatu eta ematera erakunde eta irakasle bakar batzuk besterik ez direla animatu uste dugu guk. Agian, guk geuk emandako ikastaroetatik at, inork gutxik erabiliko zuen material hau.

Hala ere, Elhuyar taldean sinetsita gaude euskara normalizatzeko bidean lan-munduari arreta berezia eskaini beharko zaiola eta, bide horretan, planteamendu hauetatik edo antzekoetatik abiatuz prestatutako ikastaro edo trebakuntz saioak burutu beharko direla.

Gure materialak lehenbailehen zaharkitu eta gaingituak geratzea litzateke, dudarik gabe, prozesu hori bere bidetik abiatu delako seinale.

Oharra

* **Zientzia eta Teknika.** J. Barandiaran, M. Barandiaran, T. Barrenetxea, M. Enzuntza, M. Etxaide, I. Irazabalbeitia, A. Sagarna, A. Sarrigi. HABE, 1986.

Aurrezki-Kutxak eta Banka. B. Azkarate, T. Barrenetxea, J. Egaña, M. Jauregi, A. Sagarna. HABE, 1987.

Udal-Administrazioa. T. Barrenetxea, E. Etxeberria, M. Jauregi, A. Sagarna. HABE, 1988.